

SPACE SCOUT™

The title 'SPACE SCOUT' is rendered in a bold, 3D, blocky font. The word 'SPACE' is on the top line and 'SCOUT' is on the bottom line. A sleek, dark rocket ship is shown in profile, flying from right to left, passing through the letters of 'SCOUT'. Small stars are scattered around the word 'SPACE'. A trademark symbol (TM) is located at the top right of the 'E' in 'SPACE'.

IZOTZALDIA

H. BADGER

IRUDIAK: C. BENNETT ETA A. MACKIE

ITZULPENA: MIREN IBARLUZEA

desclée

1. ATALA

The title '1. ATALA' is rendered in a bold, 3D, blocky font. The number '1' is on the left, followed by a period and the word 'ATALA'. The letters are white with black outlines and shadows, giving them a three-dimensional appearance. A stylized rocket ship is flying from right to left, passing through the letters 'A', 'T', 'A', and 'L'. The rocket is black with white details and is angled upwards. Small stars are scattered around the text.

2354. urtea da, eta Kip Kirby trepetak biltzen ari da: espaziora doa bidaian.

—Hartu duzu meteoritoen detektagailu eramangarria? —galdetu dio aitak.

—Hementxe daukat —Kipek, bizkar-zorroan haztaka.

—Eta, brokoli energetikoa?

—Sartu dut, ama —erantzun dio amari, ahoa ez itxiarazteko ahaleginean.

Gurasoak lasaitzea nahi luke Kipek, baina ez da halakorik gertatuko. Ez behintzat Kipek WorldCorp korporazioko Space Scout gisa lanean hasi behar duen egunean.




WorldCorp Lur planetan geratzen den korporazio bakarra da. Oso boteretsua da. WorldCorpekin Space Scoutak kontratatzen ditu, Lur planeta 2 izan behar duenaren bila abia daitezen.

Beharrezkoa da planeta berria: hiru trilioi biztanle baino gehiago bizi dira Lur planetan, eta ez dago denentzako lekurik!

Dagoeneko 49 Space Scout ari dira galaxietan, bilaketa-lanetan. Space Scout guztiek nahi dute lehenbizikoak izan bizitzeko planeta perfektua aurkitzen.

—Harro nago WorlCorpek hautatu zai-tuelako —dio Kipen amak, arnasoska. —Inoiz izan den Space Scout gazteena zara! SnotSucker bat atera du poltsikotik. SnotSuckerrak modu automatikoan ateratzen ditu mukiak sudurretik, zintz egiteko beharrik gabe.

Kip begiak ez biribilkatzen saiatu da. Ho-rrren orde, bere maskotari begiratu dio, Duke minisauroari: tapizaren gainean etzanda dago, eguzkipean. Minisauroak belaunerainoko altuerako brontosauoak dira, fosildutako DNA erabilita ugaldutakoak.




Odol hotzekoa denez, Duke ahal bezainbat etzaten da. Halaxe lortzen du energia.

Duken buru ezkatatsuari laztan egin bitartean, logelako leihotik begiratu du Kipek, hain zuzen ere eraikineko 2342. solairutik.

Hainbeste jende dago Lur planetan, ezen eraikinek milaka solairu baitituzte. Ez dago lekurik patioak edo igerilekuak jartzeko.

Bat-batean, *bip* ozen bat entzun da. Kipen SpaceCuff eskuturreko alarma da: abiatzeko ordua da.

SpaceCuff eskuturrekoa funtsezko tresna da Space Scouten ekipamenduan. Zilarrezko banda lodi bat da, eta komunikaziorako ordenagailu bat du txertatuta. Laser-aizto funtzioa ere badu.



—Joan egin behar dut —esan die Kipek gurasoei, irrikaz. Hiru hilabete eman ditu Space Scout gisa entrenatzen, eta horren ostean ezin du minutu bat bera ere itxaron lehenbiziko misioan Lur planeta uzteko.

Begirada urduria du amak.

IZENA: KIP KIRBY



FACTFILE

ADINA: 12 urte eta 3 hilabete. Gainerako Space Scoutak baino 8 urte gazteagoa da. WorldCorp korporazioak arau berezia egin du, salbuespen gisa, Kirbyren trebetasun ikaragarriak eta arriskatzeko gogoia ikusita.

ITXURA: Ile marroia, hur-koloreko begiak. Begirada xaloak ez ditu alienak beldurtuko.

ADIMENA: Adimen handikoa, baina ez da iritsi gehiegizko maila arriskutsura.

INDARRA: Gene ezin hobeak jaso ditu guraso atletikoengandik.

IZOZKI-ZAPOREA: Txokolatezko zomorro karraskariak. Abenturazalea den seinale.

MASKOTAK: Duke izeneko minisauroa.

ESKOLA: Abesbatzako 23 saiotara huts egin du. Jarritako aitzakiek sormena eta kemena erakusten dute.

% 100 erretxina biodegradagarritz egina.

—Ondo egongo naiz, ama. Beharrezko gaitasun guztiak ditut —Kipek. —Bestela, WorldCorpek ez ninduen hautatuko...


Kaskoa hartu du Kipek, eta espazio-jantzi berdea berdindu. Ederki ematen dio beroaren kontrako oihalez egindako traje distiratsuak.

Kip eta gurasoak apartamentuko igogailura abiatu dira. Igogailuak 1.158 solairu igo ditu, eraikineko teilaturaino, 0,2 segundoan. Igogailuko 3D telebistan WorldCorpen MicroAds iragarki super azkarretako bat ikusteko denbora nahiko izan dute.

Igogailu biribileko atea zabaldu egin dira. WorldCop UniTaxi bat dago aireratzeko gunean, teilatuaren erdi-erdian. UniTaxia indaba koloretsu baten antzekoa da, berdea eta sabai gardenekoa.



Kip taxira hurreratu ahala, automatikoki zabaldu da atea. Agur egin die eskuarekin gurasoei, eta laster sartu da taxian, ama malkotan hasi baino lehen.



Space Scout #50: Kip Kirby